

Martxoaren 21ean Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Nazioarteko Eguna izango da. Horren kariaz, Kulturartekotasun Mahaian parte hartzen duten elkarteekin adostutako adierazpen bateratu hau onartu zuen Basauriko udalbatzak, aho batez:

“Martxoaren 21ean Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Nazioarteko Eguna izango da. Horren kariaz, Solidaridad Euskalmón, Emakumeak Aniztasunean, Colombia Euskadi, Sapali, Cáritas Basauri eta Imdoukal elkarteok, Basauriko Udaleko Immigrazio Atalarekin, eta Udalbatzako kide garen talde politikoeekin batera, elkarrekin landutako adierazpen bateratua berritu nahi dugu.

Testuinguru sozial eta ekonomiko latza bizi dugu. Horren eraginez, gizartean elkarbizitzaren eta berme sozialen aurkako pentsamoldeak hazi, eta, are okerrago, errotzen doaz. Bada, Basauriko gizarte-eragileok eta Udalak, BERRETSI egin nahi dugu konpromisoa hartzen dugula gizabanako guztientzako eskubideak bermatzearen alde lan egiteko, bereziki, mundu guztitik gurerako bizitzera etorri direnen aurkako adierazpenei aurre egiteko.

Basaurik, 2015 honetan, aldarrikatzen du udalerrir irekia, integratzailea eta anitza izango dela. Aldarrikatzen du, era berean, harrera egiteko udalerria izango dela, bertako herritarrak, erakundeak eta gizarte-sarea diren bezalaxe.

Basaurik EZEZKO BOROBILA eman nahi dio edozein arrazakeria edota xenofobia adierazpeni; eta BAIEZKO SENDOA, berriz, elkartasunaren eta aniztasunaren errespetuaren alde egindako adierazpen guztiei.

Basaurik BERRETSI egiten du herri inklusiboa izan nahi duela, mundu guztiarentzat eskubide eta betebeharrak berdinak nahi dituela, eta, beraz, EZEZKO OZENA emango diola justizia soziala eta inklusioa aintzat hartzen ez dituen edozein legeriari.

Hori da Udal taldeok, eta adierazpen hau sinatzen dugun elkarteok hartzen dugun konpromisoa.

Basauri, 2015eko martxoaren 21a.”

**Arabieraz, frantsesez eta ingelesez irakurri ahal duzu*